

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Lanik gabe dauden gazteentzako 2024ko prestakuntza-beken deialdia egiteko Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko urriaren 17an hartutako erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 792336.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/792336>).

#### Lehenengoa. Onuradunak

Amurrion erroldatutako pertsonak, Amurrio Bidean-ek Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 Programa Operatiboaren esparruan antolatutako prestakuntza-programa batean parte hartzen ari direnak, langabetuak eta Lanbiden izena emanda daudenak enplegu-eskatzaileria gisa, helburu bereko edo antzeko beste beka edo laguntzarik jasotzen ez dutenak eta baldintza guztiak agiri bidez egiaztatzen dituztenak.

#### Bigarrena. Helburua

Amurrion bizi diren langabetuentzako 8 prestakuntza-beka, enpresetan lan egiteko, norgehiagoka bidez emateko baldintzak arautzea da deialdi honen xedea.

#### Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Amurrioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien 44. oinarria, 2024ko apirilaren 10eko 41. ALHAOn argitaratua. "Langabeentzako prestakuntza-beken udal programa arautzen duen ordenantza".

#### Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 39.840,00 eurokoa da.

#### Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea

Hamar egun, deialdia ALHAO argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Amurrio, 2024ko urriaren 22a

Alkatea  
JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA